



## **DONOSTIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN** **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

### **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

### **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa, «IG.08 Akelarre» Hirigintzako Esku Hartze Areari dagokiona** (Diputatu Kontseiluak 2006ko apirilaren 4an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko irailaren 18an argitaratua).
- **«Txomin Enea LM.06» hirigintzako esku-hartze alorrari dagokion hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketa** (Donostiako Udalbatzak 2007ko martxoaren 27an behin betiko onartua, eta GAOn 2007ko maiatzaren 17an argitaratua).



- **Hiria Antolatzeko Planeko Esnabide AL.21, Las Mercedes AL.23 eta Pasaiaiko saihesbidea AL.26 HEA-EI dagokien elementuen aldaketa** (Donostiako Udalbatzak 2007ko apirilaren 27an behin betiko onartua, eta GAOn 2007ko ekainaren 15ean argitaratua).

## **EGIN BEHARREKO ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.**
- 2.- 179, 224 eta 225 zona katastralen mugapena aldatzen da.**
- 3.- 502 eta 610 zona katastralak sortzen dira.**
- 4.- Balio hauek eman zaizkie zona katastral berriei:**

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
<b>502</b>	<b>HIRITARRA</b>	<b>510,86</b>	<b>717,61</b>	<b>7.813,16</b>
<b>610</b>	<b>HIRITARGARRIA</b>	<b>510,86</b>	<b>500,52</b>	<b>10.217,21</b>

**5.- T azpizona katastrala esleitu zaio 502 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei, eta X azpizona katastrala 610 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei.**

### **I. ERANSKINA**

**Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.**

### **II. ERANSKINA**

**Zona katastralen plano.**